


KOMUNITATEA

Hasiera • Komunitatea • Txema Arinas

TXEMA ARINAS

ETXEGABETUAK - NEREA ARRIEN

Ostirala, 2021-01-08 | [Txema Arinas](#)



ETXEGABETUAK – NEREA ARRIEN

“Gero, amatxo lan berritik etorri zen eta arropak erantzi zituen, gaueko ordu txikitan jarriko zuen garbigailuan sartzeko. Ondoren, dutxatu egin zen eta, erabat desinfektatuta atera zenean, besarkatu ninduen. Hamar minutu eman zituen hori guztia egiten, baina niri konfinamenduko egun bat baino luzeago iruditu zitzaidan. Telezorion asko jaso nituen eta mugikorretik sartzen ziren aurpegi horiko tipo pila maitek maite ninduten.”

Etxegabetuak – Nerea Arrien

Ezer baino lehen aitortu beharrean nago ez naizela oso haur eta gazte literaturazalea, hau da, apenas irakurri ohi dudala. Halere, Nerea Arrienen idazkera itzel atsegin zait bere aurreko hiru liburuak irakurri eta gero: *Pentsatzeko txokoa* (Erein, 2016), *Hirutter* (Erein, 2017) eta *Atrapa eguna* (Erein, 2017). Bada, bazait, nik deritzodan kresalezko literatura bat non kostaldeko giroko aipamenak zein zinez zintzo, samur eta batik bat originala den idaztanka bat nahasten diren ezin hobeto, txukun-txukun, ezti-ezti, maisuki. Gauzak horrela, aurrez oso gogoko zaizun idazle baten azken lana esku artean duzularik hiru gauza suerta litezke: 1. aurreko lanen aldea eskasagoa egitea, hau da, nolabait lilura galtzea, 2. Aurrekoak bezain ona iruditzea, baina nolabait ere ez gatz, ez berakatz, ala 3. aurrekoen aldean guztiz liluragarriagoa suertatzea, hots, aurrekoek eragindako lilura erruz gaintitza. Nik ez dut inolako dudarik azken hirugarren zirrara hau dela nik sumatutakoa *Etxegabetuak* irakurritakoan. Izan ere, aurreko haur eta gazteendako bi ipuinak oso apainak begitandu zitzaikidan originaltasunaren aldetik, haur eta gazteendako oso aproposak euren arreta nolabait berpizte aldera, hau da, euredako propio idatzitako ipuinen kalitatearen batez bestekoen gainetik, oso. *Hirutter* nobela oso saio interesgarri eta ausarta begiratu zitzaidan, sare sozialen munduan girotutako (des)amodio anitzeko istorio bat. Esan bezala, saio benetan bipila non Nerea Arrienen berezko idazkeraren printza gehienak nabarmen diren, beharbada itsas girokoak kenduta; baina, bazitekeen ere nobelaren jatorrizko arau ez idatzien arabera apurtxo bat lardaskatua, hau da, hain proposamen ausarta zen, ezen irakurlearen arreta nola edo hala galtzeko arrisku handia baitzen, hau da, orrietan zehar noraezean bezala edo. Edozelan ere, bada liburu bat bi bider irakurtzekoa, batez ere dagoeneko aipatutako idazkeraren printza horiek gogotik gozatzeko aldera. *Etxegabetuak* ipuin luze honekin, berriz, oso gauza bitxia suertatu zait aspaldiko partez, agian oso gaztetan Antoine de Saint-Exupéryren *Le Petit Prince*rekin gertatu zitzaidan gauza bera, irakurri ahala hau eta gazteendako bakarrik ez idatzitako ipuin bat zela jabetu nintzela, gure gaurkotasuna, gure mundua, edonori nolabait azaltzeko alegoria bat baizik haur baten begirada beti berezi, garbi eta xaloaz baliatuz, hau da, Saint-Exupéryk *Le Petit Prince*rekin bezala. Eta aipatutako frantsesezko liburuarekin suertatu bezala, *Etxegabetuak* irudi eta metafora lilura/adierazgarriez jositako ameskeria eder eta hunkigarri bat da, non Nerea Arrienen etxegabetuek eta koronabirusaren pandemia nahaspilatzan ausartzen den aparteko abilezia, sekula ezer gordinegi edo panfletariorik egiten ez baitu dohatsuki, guztiz kontrakoa baino, hain gai larriak eta puri-purikoak izanda, amesgaiztotik amesgoxora tai gabe aldatzen baita ipuinean zehar neskato protagonistaren gogoarekin batera eta berebiziko zoltitasunez. Hortaz, badugu koronabirusaren garai petralean bere amarekin batera kale gorrira botatako Libe izeneko neskatilatxoa, «Baina gure kasuan, barraskiloak ez bezala, etxean ginderramatzan gu, gurpil biribilen gainean. Eta hori ere ez nuen lar gustuko. Hala ere, zehazki zergatik ez nekien arren, pozik nengoen. », laster *Barbarintxo* izengoitia jasoko duena hiritik aita-amaen kostaldeko herrira aldatutakoan, gerora amarekin hirira bueltatuko dena beste behin ere etxetik botata izateko, hain txikerra izanda bere inguruan nonahi aipatzen den birusa bera izango dela sinetsaraziko diona, «Goiz hartan, birusaren aitzakia zela medio, mikro-organismo onak bazeudela azaldu zigun andereñoak. Hesteetan bizi ziren bakterio batzuen berri izan genuen eta birus batzuek eboluzioan eragindako onurak ikasi genituen. Trankildu egin ninduen horrek. Baina zientzia hori guztia ez zitzaidan barru-barruraino heldu, antza, tripan oraindik sosegatu ezin zen zerbait sentitzen nuelako ». Liberi izango zaio, beraz, etxegabetuek zein pandemia direla medio, abentura inizatiko moduko eskarmentu aberasgarria, bidean elkartuko/topatuko dituen lagunek, aita-amaemek zein hauen herriko mutiko Xabiroik kasuko, haren bizitzari buruzko ikusmira aldatzen lagunduko baitiote, hau da, « -Bizitza izara zuri hau bezalakoa da, maitea. Oraindik gaztea zara eta izara osoa daukazu nahi duzun soinekoa josteko. Ibiltzen hastear zara bere gainean, treneam triki.-traka, oinez edo hegazkinez. Bizitza duzu Singerra. Eta zuk bizitza osoa duzu aurretik. Ez tristatu, eder hori. Puntada hau kenduko dugu denon artean. Horretarako gaudu amona eta aitona». Eta gutxi ez balitz bezala, baita gorago esan bezala ere, hemen ere delako kresalazko literatura gozo eta eze horren zertzeladak edonon : «Baina kresal ufada geroz eta tematiagoa zen eta, salto batez, brodatutako soinekoa alderantzira jarrita, leihora hurreratu nintzen. Oraingoan, urdinak biltzen zituen etxeak. Urdin horren usaina zuen kresalak eta esekitokietan dingilizka zeuden arropak. Urdin horren erritmoan mugitzen zen itsasoko aparra eta txalupatxoak plemaran. Itsasgora horretatik horretatik itsabeharera bitarteko denborak neurtzen zuen bizitza hura. Eguzkiak gogoz itsutzen zizkidan begiak, baina ez nion Laburdiluz, haurrak, gazteak eta nagusiak, edonori, iluratzeko moduko ipuin ikaragarri eder txu egin, ez nuen inor izorratzeko beharrik izan » bat eta gure gaurkotasunera maisuki, izugarri sotil, galant, airoso lotua Nerea Arrienek berezko duen idazkera benetan goraiagarriari esker, testuan barrena hainbat zirrara eragiteaz gain perla moduko etengabeko gogoetak ere eskaintzen dizkiguna : «Denek barre egin zuten baina ni pentsakor geratu nintzen. Zergatik ote ziren, atsekabeen, andreak «gaixoak» eta gizonak «gizajoak» Edota, onenean, mutilak «papardoak » eta neskak «lindak » ? Ez nuen ezer galdetu txorakeria bat izango zelakoan », «-Pobreen etxeek zirrikituak eta arrakalak dituzte. Pobreen jantziek bezala. Horietatik sartze da gauetan izozten den ura, birusak eta arazoak -esan nion, eta Mariori izoztutako malko bat atera zitzaiola ikusi nuen. Eskuan jaso nion eta urtu egin zitzaidan gutxina-gutxinaka ».

TXEMA ARINAS

UVIEUN, 2021/01/08

Utzi zure iruzkina

Izena E-posta

Osatu kanta: "Hegoak _____ banizkio, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)

Idatzi zure iruzkina

Iruzkina bidali

Zer da Komunitatea? Nola izena eman?

Zer da uberan.eus web orriko Komunitatea?

uberan.eus web orriaren euren sormen lanak partekatu nahi dituzten kideek osatuko dute Komunitatea.

uberan.eus web orriaren baitan propio sortu den atal honetan, beraz, sormen lan horiek denak batuko dira. Eta beraz, **ETXEGABETUAK - NEREA ARRIEN** 2021-01-08 Komunitateko kideez gain, uberan.eus web orriara hurbiltzen den edonork ere bisitatu ahal izango du uberan.eus web orriko Komunitatea.

Zer da Komunitateko kide izatea?
 «Ezta! Hala ere, zure iruzkina zer den? Carson McCullers, eta halakoxeak dira haren pertsonariak onenak» Norbanakoak. Norbanakoak dira izen-abizena duten erabiltzaileak. Komunitatea atalean, sormen lanak gehitzeko aukera izango dute. Hitzak eta irudiak baliatuko ahal izango dituzte horretarako.

Zer da Komunitateko kide bihurtu eta edukia gehitzeko?
 Kide izateko eskaera bideratuz: beharago dagoen formularioa bete eta igorri behar duzu. Benetako datuak eman dituzula konprobatu ondoren, Komunitateko kide izateko eskaera onartuko zaizu.

Gida liburuxka bat bidaliko zaizu, eta gida horren bitartez zure sormen lanak uberan.eus orriko Komunitatera igortzeko behar dituzten informazioak jasoko dituzu.

Erreferentzia egokien garrantzia
 HoriK aldi batera, zure sormen lanak uberan.eus-era lotzeko aukera izango duzu.

Oharra: Ezingo da mezu iraingarriak argitaratu. Halakoetan, post hori ezabatzeko eskubidea izango du adarriantzerako. **Argantzean oso zaila da zure datuak gure kudeaketa sistema** eta entengo litzateke.